



El Secretario Técnico

**Resolución 1081/2020**, de 20 de julio, del Secretario General de la Universidad Pública de Navarra, por la que se determinan las instrucciones relativas al tratamiento de las resoluciones emitidas y sus expedientes previos en la Universidad desde el día 16 de marzo de 2020.

La alerta sanitaria provocada por el Coronavirus (COVID-19) dio lugar en la Comunidad Foral de Navarra al dictado de la Orden Foral 3/2020, de 13 de marzo, de la Consejera de Salud, por la que se adoptaban medidas preventivas e instrucciones de salud pública. En el mismo contexto, el Gobierno de España, por Real decreto 463/2020, de 14 de marzo, declaró el Estado de Alarma.

Mediante Resolución 502/2020, de 15 de marzo, del Rector de la Universidad Pública de Navarra, se aprobó la suspensión de toda la actividad presencial de la institución universitaria. Esta medida afectó, desde las 18 horas del 16 de marzo de 2020, a todas las actividades presenciales, de todos los miembros de la Comunidad Universitaria y en todas las instalaciones de la Universidad Pública de Navarra, con la excepción de las que fueran designadas para el mantenimiento de los servicios esenciales que se determinasen mediante resolución rectoral.

La excepcionalidad y gravedad de la situación sanitaria existente, tuvo consecuencia lógica en el funcionamiento de los servicios administrativos de la Universidad Pública de Navarra y, en lo que aquí interesa, afectó a la tramitación y firma de las resoluciones propias de los órganos de gobierno unipersonales que, a consecuencia de la incentivación de las medidas de teletrabajo, experimentó un incremento sustancial del uso del certificado de firma digital tanto en la formalización de las propias resoluciones como en los documentos del expediente administrativo que les sirven de antecedente y fundamento, todo ello en un marco aún de transición hacia el implemento de la aplicación integral para el tratamiento de expedientes electrónicos.

La Resolución 797/2020, de 19 de junio, de Rector de la Universidad Pública de Navarra, adoptó las medidas necesarias para el retorno presencial a los edificios e instalaciones de la Universidad. Transcurrido un plazo prudencial desde el día de su entrada en vigor, 22 de junio de 2020, procede dictar instrucciones que permitan actuar sobre las resoluciones firmadas con certificado de firma digital, así como de sus expedientes previos en ese mismo formato, desde el día 16 de marzo de 2020, incluyendo los expedientes que en su caso le precedan, con el fin de garantizar un correcto tratamiento y conservación de los mismos.

**1081/2020 Ebazpena**, uztailaren 20koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko idazkari nagusiak emana, Unibertsitatean 2020ko martxoaren 16tik aurrera emandako ebazpenen eta alde zuzeneko espedienteen tratamenduari buruzko jarraibideak zehazten dituena.

Koronabirusak (COVID-19) eragindako osasun-alertaren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitatean Osasuneko kontseilariak 2020ko martxoaren 13an emandako 3/2020 Foru Aginduaren bidez hartu ziren neurri prebentiboak eta osasun publikoko jarraibideak. Testuinguru horretan, Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak martxoaren 15ean emandako 502/2020 Ebazpenaren bidez, unibertsitateko jardura presentziala bertan behera geratu zen. Neurri horrek eragina izan zuen, 2020ko martxoaren 16ko 18:00etatik aurrera, unibertsitateko komunitateko kide guztien jardura presentzial guztietan eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko instalazio guztietan, errektorearen ebazpenaren bidez zehazten diren funtsezko zerbitzuak mantentzeko finkatu direnetan izan ezik.

Osasun egoera salbuespenezkoa eta larria izateak ondorio logikoa izan zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazio zerbitzuen funtzionamenduan, eta, hemen interesatzen zaigunari dagokionez, pertsona bakarreko gobernu organoen ebazpenen tramitazioari eta sinadurari eragin zion. Izan ere, telelaneko neurriak sustatzearen ondorioz, sinadura digitalaren ziurtagiriaren erabilera nabarmen handitu zen, bai ebazpenak formalizatzean, bai haien alde zuzenekoak eta oinarria diren espediente administratiboaren oinarrietan. Hori guztia espediente elektronikoak tratatzeko aplikazio integralaren ezarpenarako trantsizio-esparru batean.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak 2020ko ekainaren 19an emandako 797/2020 Ebazpenak beharrezko neurriak hartu zituen Unibertsitateko eraikin eta instalazioetan jardura presentziala berriz hasteko. Indarrean sartu zen egunetik (2020ko ekainaren 22a) zentzuzko epe bat igaro da, eta, beraz, bidezkoa da jarraibideak ematea sinadura digitalaren ziurtagiriarekin sinatutako ebazpenen gainean jarduteko, bai eta alde zuzeneko espedienteen gainean ere, formatu horretan bertan, 2020ko martxoaren 16tik aurrera, dagozkion aurretiazko espedienteak barne, behar bezalako tratamendua eta kontserbazioa bermatzeko.

Por todo lo que antecede, en ejercicio de las competencias que tengo conferidas, se resuelve informar de las siguientes

## INSTRUCCIONES

**Primero.-** Los distintos servicios de la Universidad Pública de Navarra remitirán, en formato electrónico, a la dirección de correo electrónico **firmasecretaria@unavarra.es**, las resoluciones suscritas con certificado de firma digital que se han generado y custodiado por los mismos, desde el día 16 de marzo de 2020.

**Segundo.-** Los distintos servicios de la Universidad Pública de Navarra adjuntarán, a las resoluciones contempladas en el apartado primero, la documentación que, en su caso, le preceda y sirva de fundamento (informe, propuestas, etc), siempre que ésta también hayan sido objeto de suscripción mediante certificado de firma digital.

**Tercero.-** Se establece como plazo de envío de la documentación reseñada el día 31 de agosto de 2020, sin perjuicio de las circunstancias específicas concurrentes que serán atendidas, previa comunicación con Secretaría Técnica, en el teléfono 948168963.

**Cuarto.-** Respecto a las resoluciones que se emitan desde el dictado de esta resolución, se recomienda la vuelta a la firma manuscrita de la documentación que integra los expedientes, sin perjuicio de la posibilidad de acudir excepcionalmente a la firma digital en supuestos justificados o en lo referente a la suscripción de resoluciones que culminen los distintos procedimientos por parte de los órganos de gobierno unipersonales.

**Quinto.-** Procede recordar a todos los Servicios que la tramitación de los expedientes administrativos se debe continuar haciendo en papel, habida cuenta que no puede considerarse que está implementada la administración electrónica en la institución universitaria, salvo que de nuevo concurren circunstancias excepcionales motivadas por la situación sanitaria.

En Pamplona, a 20 de julio de 2020

Horregatik guztiagatik, arauak esleitzen dizkidaten eskumenak erabiliz, jarraibide hauek onesten ditut:

## JARRAIBIDEAK

**Lehenengoa.-** Nafarroako Unibertsitate Publikoko zerbitzuek, euskarri elektronikoan, 2020ko martxoaren 16tik aurrera sinadura digitalaren ziurtagiriarekin sinatutako eta gordetako ebazpenak bidaliko dituzte **firmasecretaria@unavarra.es** helbide elektronikora.

**Bigarrena.-** Nafarroako Unibertsitate Publikoko zerbitzuek, lehenengo apartatuan adierazitako ebazpenei, aldez aurrekoa eta oinarri duen dokumentazioa erantsiko diete (txostena, proposamenak, etab.), baldin eta dokumentazio hori ere sinadura digitalaren ziurtagiriaren bidez sinatu bada.

**Hirugarrena.-** Aipatutako dokumentazioa bidaltzeko epea 2020ko abuztuaren 31n amaituko da. Nolanahi ere, berariazko inguruabarrak ere bete beharko dira, Idazkaritza Teknikoarekin harremanetan jarri eta gero, 948168963 telefonora deituz.

**Laugarrena.-** Ebazpen hau eman eta gero ematen diren ebazpenei dagokienez, espedienteetako agiriak eskuz sinatzea gomendatzen da. Hala ere, salbuespen gisa sinadura digitalera jotzeko aukera egongo da, justifikatutako kasuetan edo kide bakarreko gobernu-organismoek prozedurak burutzeko ematen dituzten ebazpenak izenpetzeari dagokionez.

**Bosgarrena.-** Zerbitzu guztiei gogorarazi behar zaie espediente administratiboen izapideak paperean egiten jarraitu behar dela, kontuan hartuta ezin dela pentsatu administrazio elektronikoa unibertsitate-erakundearen ezarritako dagoela, salbu eta osasun-egoerak eragindako salbuespenezko inguruabarrak berriro gertatzen badira.

Iruñean, 2020ko uztailaren 20an

Roldán Jimeno Aranguren

SECRETARIO GENERAL  
IDAZKARI NAGUSIA